

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko iraila

Euskal AEko landa-ostatuetau gualdiak % 1,5 jaitsi dira 2024ko irailean, eta apartamentu turistikoetan % 8 igo dira

Udako hiru hilabeteetan, landa-ostatuetau gualdiak % 1,9 jaitsi dira eta apartamentu turistikoetau % 11,6 igo dira

Euskal AEko **landa-ostatuetau** sarrerren kopurua % 6,3 jaitsi da **2024ko irailean**, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, eta ostatu-gauak ere % 1,5 jaitsi dira, Eustatek landutako datuen arabera. Urte arteko aldakuntza horiekin, irailean 17.668 sarrera izan dira eta ostatu-gauak, berriz, 44.462.

Euskal AEko landa-ostatuetau sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Iraila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	2023/09	2024/09	p.p. *	2024/09	p.p. *
EUSKAL AE	17.668	-6,3	44.562	-1,5	2,52	2,40	33,1	0,1	40,3	2,0
Estatukoak	11.297	-9,6	29.513	-4,2	2,61	2,47	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.371	0,1	15.049	4,3	2,36	2,27	-	-	-	-
Araba/Álava	2.780	0,0	6.187	-9,9	2,23	2,47	19,2	-1,7	25,1	0,0
Estatukoak	1.932	-11,9	4.193	-19,9	2,17	2,39	-	-	-	-
Atzeritarrak	848	45,0	1.994	22,3	2,35	2,79	-	-	-	-
Bizkaia	5.941	-10,8	13.772	-7,4	2,32	2,23	34,3	-1,7	39,9	-0,5
Estatukoak	3.818	-16,5	9.463	-14,0	2,48	2,41	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.123	1,5	4.309	11,1	2,03	1,85	-	-	-	-
Gipuzkoa	8.947	-5,0	24.603	4,6	2,75	2,50	39,6	2,2	48,2	4,6
Estatukoak	5.547	-3,3	15.857	8,7	2,86	2,54	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.400	-7,8	8.746	-2,0	2,57	2,42	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko irailarekin alderatuta % 0,1eko aldakuntza txikiarekin, 2024ko irailean Euskal AEko landa-ostatuetau izan diren sarrera guztien % 36,1 atzeritarrenak izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, osatu-gau guztien % 33,8 izan dira atzeritarrenak, eta 2023ko irailarekin alderatuta % 4,3 igo dira, beraz.

Lurralde historikoen arabera, Araban sarrerak egonkor mantendu dira, eta Gipuzkoan, berriz, % 5,0 jaitsi dira eta Bizkaian % 10,8. Ostatu-gauetarako dagokienez, Araban % 9,9 jaitsi dira eta Bizkaian % 7,4; Gipuzkoaren kasuan, berriz, % 4,6 igo dira urtetik urterako datuen arabera.

Euskal AEko era honetako establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,52 egunekoa izan da 2024ko irailean, aurreko urteko hil bereko 2,40 egunekoa batez besteko egonaldiaren gainetik. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen arabera okupazio-maila hamarren bat igo da 2023ko irailekoarekin alderatuta, eta % 33,1ekoa da. Gelakako okupazioak, aldiz, urtetik urterako ehuneko 2 puntuko igoera izan du, eta azken hilabeteen % 40,3koa izan da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko irailean 19.640 sarrera erregistratu dira, eta ostatu-gauak 65.993 izan dira. Datu horiek aurreko urteko irailekoekin alderatuz gero, sarreraren kasuan igoera % 4,4koa izan da eta ostatu-gauen kasuan % 8,0koa.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Iraila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	2023/09	plazen arabera		apartamentuak	
	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	2023/09	2024/09	p.p. *	2024/09	p.p. *
EUSKAL AE	19.649	4,4	65.993	8,0	3,36	3,25	41,8	-0,2	72,9	1,7
Estatukoak	11.481	1,5	38.449	6,0	3,35	3,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.167	8,8	27.543	10,9	3,37	3,31	-	-	-	-
Araba/Álava	1.120	-34,8	9.258	6,1	8,27	5,08	29,5	2,3	78,4	11,0
Estatukoak	953	-35,0	6.495	1,0	6,81	4,39	-	-	-	-
Atzeritarrak	167	-33,9	2.763	20,3	16,54	9,08	-	-	-	-
Bizkaia	13.456	12,0	31.336	14,1	2,33	2,29	44,4	0,2	61,7	0,2
Estatukoak	7.718	6,7	17.035	10,0	2,21	2,14	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.737	19,8	14.300	19,4	2,49	2,50	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.073	-0,1	25.399	2,0	5,01	4,91	45,5	-3,1	82,6	0,7
Estatukoak	2.810	7,5	14.919	3,9	5,31	5,49	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.263	-8,2	10.480	-0,7	4,63	4,28	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 41,6 eta ostatu-gau guztien % 41,7 atzerriko bisitariei dagozkie, irailean urte arteko % 8,8ko eta % 10,9ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,36 egunekoa izan da 2024ko irailean, eta 2023ko irailean Euskal AE osoan 3,25 egunekoa izan zen. Araban, mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 8,27 egunekoa izan da, Gipuzkoan 5,01 egunekoa eta Bizkaian 2,33 egunekoa.

Euskal AEko plazen okupazio-maila % 41,8ra iritsi da, 2023ko irailean baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, berriz, ehuneko 1,7 puntu igo da, eta % 72,9ra iritsi da.

Euskal AEko **aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2024ko irailean urtetik urterako % 22,1eko igoera izan da sarreretan, eta guztira 24.891 sarrera eta 41.304 ostatu-gau izan dira. Bizkaian 20.152 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 20.687 eta, azkenik, Araban, era horretako ostatueta egindako ostatu-gauak 466 izan dira.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Iraila 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	m/m-12 (%)	2024/09	2023/09	2024/09	p.p.
EUSKAL AE	24.891	22,1	41.304	14,1	1,66	1,77	39,2	3,4
Estatukoak	8.650	20,2	14.453	0,4	1,67	2,00	-	-
Atzerritarrak	16.241	23,1	26.852	23,2	1,65	1,65	-	-
Araba/Álava	262	-27,1	466	-20,0	1,77	1,62	9,3	-3,0
Estatukoak	243	-19,4	446	-11,9	1,84	1,68	-	-
Atzerritarrak	20	-66,6	20	-74,1	1,00	1,29	-	-
Bizkaia	12.341	7,4	20.152	-6,2	1,63	1,87	37,1	-2,9
Estatukoak	4.648	8,8	7.356	-20,9	1,58	2,18	-	-
Atzerritarrak	7.693	6,6	12.796	5,0	1,66	1,69	-	-
Gipuzkoa	12.287	43,8	20.687	46,4	1,68	1,65	44,8	11,7
Estatukoak	3.759	43,4	6.651	44,9	1,77	1,75	-	-
Atzerritarrak	8.528	44,0	14.036	47,1	1,65	1,61	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Turismo-aterpetxeetako egonaldiaren batez besteko iraupena, 2024ko irailean, 1,66 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 3,4 puntu igo ondoren, % 39.2koa.

2024ko udako balantzea

2024ko udan, Euskal AEko landa-ostatuetauko gualdiak % 1,9 jaitsi dira, eta apartamentu turistikoetan % 11,6 igo dira

Udako hiru hilabetetan (2024ko uztailan, abuztuan eta irailean) Euskal AEko landa-ostatuetauko ostatu-gauak % 1,9 jaitsi dira aurreko urteko udarekin alderatuta, eta sarrerak ere % 3,0 jaitsi dira.

Lurralde historikoen arabera banatuta, ostatu-gauak % 1,0 igo dira Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 7,5 jaitsi dira eta Araban % 0,2. Sarrerak % 8,5 igo dira Araban, eta Bizkaian, aldiz % 7,9 jaitsi dira eta Gipuzkoan % 3,2.

Euskal AEko landa-ostatuetauko sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Uda(*). 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	2023	2024	p.p.	2024	p.p.
EUSKAL AE	67.180	-3,0	212.536	-1,9	3,16	3,13	49,9	-0,1	55,8	0,8
Estatukoak	46.487	-5,0	154.682	-3,3	3,33	3,27	-	-	-	-
Atzeritarrak	20.693	1,8	57.854	2,0	2,80	2,79	-	-	-	-
Araba/Álava	11.292	8,5	30.903	-0,2	2,74	2,97	30,9	0,7	37,2	1,6
Estatukoak	8.337	0,7	22.883	-7,0	2,74	2,97	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.955	39,1	8.020	26,2	2,71	2,99	-	-	-	-
Bizkaia	21.430	-7,9	65.217	-7,5	3,04	3,03	52,3	-1,6	58,0	0,5
Estatukoak	14.725	-11,8	47.042	-9,7	3,19	3,12	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.705	1,9	18.175	-1,2	2,71	2,80	-	-	-	-
Gipuzkoa	34.458	-3,2	116.416	1,0	3,38	3,24	57,9	0,1	63,4	0,3
Estatukoak	23.425	-2,3	84.757	1,8	3,62	3,47	-	-	-	-
Atzeritarrak	11.033	-5,0	31.659	-1,0	2,87	2,75	-	-	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Batez besteko egonaldia 3,16 egunekoa izan da, 2023ko udako 3,13 eguneko batez besteko egonaldiaren gainetik. Nabarmentzen da Gipuzkoako batez besteko 3,38 eguneko egonaldia, eta Bizkaian 3,04 egunekoa izan da eta Araban 2,74 egunekoa.

Era horretako ostatuetauko plazen arabeko okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 49,9koa izan da, eta gelen arabekoa % 55,8koa. Horrek adierazten du plazen kasuan ehuneko 0,1eko jaitsiera izan dela eta gelen kasuan, berriz, 0,8 puntuko igoera.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**ei dagokienez, 2024ko udan 78.015 sarrera izan dira, aurreko udarekin alderatuta % 12,5eko igoera izan ondoren. Bestalde, ostatu-gauak 242.657 izan dira, 2023ko udan baino % 11,6 gehiago.

Lurralde historikoen arabera banakatuta, Gipuzkoan sarreretan izandako % 22,0ko igoera eta ostatu-gauetan izandako % 10,2koa aipatu behar dira. Bizkaian % 14,0ko eta % 12,7ko igoerak izan dira aldaera horietan, eta, azkenik, Araban sarrerak % 32,9 jaitsi dira eta ostatu-gauak, berriz, % 11,5 igo dira.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Uda(*). 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	2023	2024	p.p.	2024	p.p.
EUSKAL AE	78.015	12,5	242.657	11,6	3,11	3,14	51,3	2,0	71,4	1,2
Estatukoak	41.788	4,0	134.679	5,2	3,22	3,19	-	-	-	-
Atzeritarrak	36.227	24,1	107.978	20,7	2,98	3,07	-	-	-	-
Araba/Álava	3.915	-32,9	32.119	11,5	8,20	4,94	33,5	4,1	82,9	14,8
Estatukoak	3.043	-34,8	23.146	3,3	7,61	4,80	-	-	-	-
Atzeritarrak	872	-25,3	8.972	40,1	10,29	5,48	-	-	-	-
Bizkaia	49.025	14,0	117.560	12,7	2,40	2,43	56,1	-0,1	67,1	-3,4
Estatukoak	26.122	4,5	62.273	4,0	2,38	2,40	-	-	-	-
Atzeritarrak	22.904	27,3	55.287	24,4	2,41	2,47	-	-	-	-
Gipuzkoa	25.075	22,0	92.978	10,2	3,71	4,10	55,6	2,1	71,4	0,7
Estatukoak	12.624	20,1	49.260	7,8	3,90	4,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	12.451	24,1	43.719	13,1	3,51	3,85	-	-	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Batez besteko egonaldia 3,11 egunekoa izan da 2024ko udako hiru hilabeteak kontuan hartuta, eta 2023ko aldi berean 3,14 egunekoa izan zen.

2024ko udan, Euskal AE osoko plazen okupazio-maila % 51,3koa izan da, eta 2023koarekin alderatuta ehuneko 2,0 puntuko igoera izan da; apartamentuen kasuan % 71,4koa izan da, eta urte arteko datuetan ehuneko 1,2ko igoera izan da, beraz.

2024ko udako hilabeteetan, Euskal AEko **aterpetxe turistikoetako** sarrerak 96.519 izan dira guztira, eta ostatu-gauak 174.758. Aurreko urteko udako datuekin alderatuz gero, sarreraren kasuan igoera % 18,1ekoa izan da eta ostatu-gauen kasuan % 15,1ekoa.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Uda (*). 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	2023	2024	p.p.	2024	p.p.
EUSKAL AE	96.519	18,1	174.758	15,1	1,81	1,86	54,0	5,7	2,3	-5,8
Estatukoak	33.485	11,7	62.412	-4,3	1,86	2,18	-	-	-	-
Atzeritarrak	63.034	21,7	112.346	29,7	1,78	1,67	-	-	-	-
Araba/Álava	1.424	-48,0	2.942	-33,4	2,07	1,61	19,4	-10,6	3,6	-2,6
Estatukoak	1.325	-34,8	2.770	-22,5	2,09	1,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	99	-86,0	172	-79,6	1,73	1,19	-	-	-	-
Bizkaia	53.093	22,2	94.454	15,2	1,78	1,89	56,6	5,9	2,9	-9,0
Estatukoak	19.623	12,1	33.403	-10,8	1,70	2,14	-	-	-	-
Atzeritarrak	33.469	29,1	61.051	37,1	1,82	1,72	-	-	-	-
Gipuzkoa	42.003	18,1	77.362	18,2	1,84	1,84	54,7	7,2	1,1	-1,5
Estatukoak	12.537	20,2	26.239	8,6	2,09	2,32	-	-	-	-
Atzeritarrak	29.466	17,2	51.124	23,9	1,74	1,64	-	-	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2024ko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharra

ETHren erantzun-tasa **% 95,2koa** izan da hilabete honetan landa-ostatueta, **% 87,1koa** apartamentu turistikoetan eta **% 83,5koa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek egindako ahalegina eskertu die inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62